DURANGO
Udala • Ayuntamiento

**AURRETIAZKO KONTSULTA**

*DURANGOKO UDALEKO HEZKUNTZA-KONTSEILUA ARAUTZEKO ORDENANTZA*

Erregelamendu-mailako arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea bermatzeko, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APAPEL) 133. artikuluan xedatutakoa betez, funtsezkoa da aldez aurretik kontsulta publiko bat egitea ordenantza egin aurretik.

Kontsulta-izapide horren xedea, APAPELaren 133.1 artikuluan ezarritako gaiei buruzko iritziak eskatzea da. Hona hemen gai horiek:

a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
c) Arauaren helburuak.
d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Durangoko Udalaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Gobernantzako Araudiaren 99. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsultarako, entzunaldirako eta jendaurreko informaziorako epea hamabost (15) egun naturalekoa izango da. Egun horiek udal web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

Ordenantza sortzeko proposamen horri dagozkion nahitaezko kontsulta-, entzunaldi- eta jendaurreko informazio-izapideak abiarazteari buruzko arauzko gogoetak azaldu ondoren, kontsultaren xede diren gaiak zehaztuko dira.

**CONSULTA PREVIA**

*ORDENANZA REGULADORA DEL CONSEJO MUNICIPAL DE EDUCACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE DURANGO*

Teniendo en cuenta la necesidad de garantizar la participación ciudadana en el proceso de elaboración de normas reglamentarias, y en cumplimiento del artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (LPACAP), es fundamental llevar a cabo una consulta pública previa antes de la elaboración de la ordenanza.

El objeto de la citada consulta es el solicitar opiniones acerca de las cuestiones estipuladas en el artículo 133.1 de la LPACAP y que detallamos a continuación:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
c) Los objetivos de la norma.
d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

En virtud a lo dispuesto en el artículo 99 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Gobernanza Municipal del Ayuntamiento de Durango, el periodo de consulta, audiencia e información pública será de quince (15) días naturales, los cuales comenzarán a contar a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar su publicación en la página web del Ayuntamiento de Durango.

Una vez expuestas las consideraciones normativas referidas a la puesta en marcha de los trámites preceptivos de consulta, audiencia e información pública referidos a la citada propuesta de creación de ordenanza, se procede a determinar las diferentes cuestiones objeto de consulta.

***EL OBJETIVO DE LA NORMA***

### *ARAUAREN HELBURUA*

Durangok badu ibilbide esanguratsua hezkuntza-partaidetzan, Udal Eskola Kontseilua eta Hezkuntza Foroa bezalako esperientzien bidez gauzatua. Esperientzia horiek ikastetxeen, familien, gizarte-, kultura- eta kirol-erakundeen eta ordezkari instituzionalen arteko topaketa eta lankidetza guneak sortu dituzte. Prozesu horiek agerian utzi dute hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko lankidetzaren balioa, dinamizazio teknikoaren garrantzia eta partaidetzarako egitura egonkorrago, inklusiboago eta eraginkorragoetara aurrera egiteko beharra.

Ebaluazio eta hausnarketa kolektiboko prozesuek hainbat erronka azaleratu dituzte, hala nola orain arte egin den lanaren eta hemendik aurrera egingo denaren komunikazioa eta herritarren ekarpenak txertatzeko mekanismoak indartzea, profil eta ahots berriak txertatzea —bereziki haur eta nerabeenak—, aniztasuna eta inklusioa bermatzea, eta hezkuntza-partaidetzaren jarraikortasuna eta eragina sendotzea. Horrek guztiak indartu egiten du aurreko esperientziak integratu eta gaindituko dituen Udaleko Hezkuntza-kontseilu baterantz aurrera egiteko egokitasuna, partekatutako espazio instituzional gisa sendotuz.

### *EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK*

Orain arte hezkuntzaren alorrean Durangon indarrean eta jardunean aritu diren topagune eta egitura desberdinen urteetako bilakaerak hainbat zer hobetu utzi ditu agerian, hala nola komunikazioa eta parte-hartzea indartzea, haur eta nerabeen ahotsak integratzea, aniztasuna eta inklusioa bermatzea, eta oro har, eragileen parte hartzea erraztu eta lagunduko duen egitura egonkor eta eraginkorra osatzea: atsegina, gozagarria, norberaren bizitza

Durango cuenta con una trayectoria significativa en participación educativa, materializada a través de experiencias como el Consejo Escolar Municipal y el Foro de la Educación. Estas experiencias han generado espacios de encuentro y colaboración entre centros educativos, familias, entidades sociales, culturales y deportivas, y representantes institucionales. Estos procesos han puesto de manifiesto el valor de la colaboración entre la educación formal y no formal, la importancia de la dinamización técnica y la necesidad de avanzar hacia estructuras de participación más estables, inclusivas y eficaces.

Los procesos de evaluación y reflexión colectiva han evidenciado diversos retos, como la necesidad de mejorar la comunicación del trabajo realizado y del que se desarrollará en adelante, reforzar los mecanismos para incorporar las aportaciones de la ciudadanía, integrar nuevos perfiles y voces —especialmente las de la infancia y la adolescencia—, garantizar la diversidad y la inclusión, y consolidar la continuidad y el impacto de la participación educativa. Todo ello refuerza la pertinencia de avanzar hacia un Consejo Municipal de Educación que integre y supere las experiencias previas, consolidándose como un espacio institucional compartido.

### *PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR CON LA INICIATIVA*

La evolución a lo largo de los años de los diferentes espacios de encuentro y estructuras que hasta ahora han estado vigentes y operando en el ámbito educativo en Durango ha puesto de manifiesto la necesidad de mejoras como reforzar la comunicación y la participación; la integración de las voces de los niños, niñas y adolescentes; garantizar la diversidad y la inclusión; y, en general, la configuración de una estructura estable y eficaz que facilite y favorezca la participación de los distintos agentes: amable, agradable, compatible con

pertsonalarekin bateragarria eta denboran jasangarria.

Oparoa izan da Durangok Herri Hezitzaile gisa egindako ibilbidea, eta hainbat izan dira horren aterkipean eratu eta abian jarritako egiturak. Egindako lan hori inolaz ere gutxietsi barik; alderantziaz, egindakoari merezi duen aintzatespena egin, eta lan-topagune horiek guztiak ordenatu eta integratuko dituen egitura nagusia osatzea da Udalaren asmoa. Hau da, foro hauek guztiak barne hartu, haien arteko elkarreragin eta sinergiak bultzatu eta Hezkuntza alorrari koherentzia eta kohesioa emango dion oinarri sendoa eskaintzea.

Labur, hauek dira Durangoko Udaleko Hezkuntza-kontseiluaren bitartez erdietsi nahi diren helburu nagusiak:

- Hezkuntza komunitate-proiektu gisa ulertzeko ikuspegi partekatua sustatzea.
- Hezkuntza-proiektu komunitarioak bultzatzea.
- Hezkuntzaren alorreko erronkak eta lehentasunak identifikatzea.
- Udalari eta eskumena duten gainerako erakundeei proposamenak eta gomendioak helaraztea.
- Herri hezitzaileen eta haurren hirien printzipioak garatzea.
- Hezkuntzarako, parte-hartzerako, inklusiorako eta ongizaterako eskubideak eta ongizate integrala bermatzen saiatzea.

Kontseiluak espazio bizi eta dinamiko bihurtzea du helburu, elkarrizketan, lankidetzan eta erantzukizun partekatuan oinarritua, Durangoko errealitate sozial, kultural eta linguistikoarekin loturiko hezkuntza integrala sustatuko duena, haur,

la propia vida personal y sostenible en el tiempo.

La trayectoria de Durango como Ciudad Educadora ha sido prolífica y han sido varias las estructuras que se han formado y puesto en marcha bajo su paraguas. Sin menospreciar en ningún caso el trabajo realizado hasta el momento; todo lo contrario, partiendo de su reconocimiento, la intención del Ayuntamiento es conformar una estructura central que ordene e integre todos estos espacios de trabajo. Es decir, integrar todos estos foros, favorecer las interacciones y sinergias entre ellos y ofrecer una base sólida que dé coherencia y cohesión al ámbito de la Educación.

En resumen, éstos son los principales objetivos que se pretenden conseguir a través del Consejo Municipal de Educación del Ayuntamiento de Durango:

- Promover una visión compartida de la educación como proyecto comunitario.
- Impulsar proyectos educativos comunitarios.
- Identificar retos y prioridades en el ámbito educativo.
- Trasladar propuestas y recomendaciones al Ayuntamiento y demás instituciones competentes.
- Desarrollar los principios de los pueblos educadores y ciudades de la infancia.
- Contribuir a promover y garantizar los derechos a la educación, a la participación, a la inclusión y al bienestar.

El Consejo aspira a convertirse en un espacio vivo y dinámico, basado en el diálogo, la colaboración y la corresponsabilidad, que impulse una educación integral vinculada a la realidad social, cultural y lingüística de Durango, situando en el centro el bienestar y el desarrollo de la infancia, la adolescencia y del conjunto de la ciudadanía.

nerabe eta herritar guztien ongizatea eta garapena ardatz hartuta.

### *ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA*

Hezkuntza funtsezko zutabea da garapen pertsonalerako, gizarte-kohesiorako eta herritartasun kritiko, inklusibo eta konprometitu baten eraikuntzarako. Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluak hezkuntzarako eskubidea aitortzen du, eta botere publikoei eskubide hori bermatzeko ardura esleitzen die. Autonomia-erkidegoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak hezkuntza-sistema bat eratzen dute, berdintasunaren, inklusioaren, bikaintasunaren, gizarte-kohesioaren eta partaidetza komunitarioaren printzipioetan oinarritua, eta berariaz aitortzen dute udalerrien eginkizuna hezkuntza-gobernantzan.

17/2023 Legeak hezkuntzaren ikuspegi zabala txertatzen du, hezkuntza ez baita soilik eskola-eremuan garatzen den prozesu bat, baizik eta eskolaren, familien, erakundeen eta komunitatearen arteko erantzukizun partekatua. Eskola, familia eta ingurune soziala hezkuntza-prozesuan eragile aktiboak direla kontuan hartuta, hezkuntza ez da ikastetxeen esparrura mugatzen, baizik eta komunitate osoan garatzen den erantzukizun partekatua da. Horrela, komunitate osoak ikasten du eta komunitate osoak irakasten du, hezkuntza prestakuntza-prozesu iraunkorra dela aitortuz, pertsonak aberasten dituena bai maila pertsonalean bai sozialean, eta hezkuntza-eragile aktibo bihurtzen dituena.

Testuinguru horretan, Durango horrela ulertzen da: hezkuntza-esparrua modu formalean (hezkuntza arautua), ez-formalean (hezkuntza-asmoa duten jarduerak, eskola-sistematik kanpo) eta informalean (hezkuntza-eragina duten

### *LA NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACIÓN*

La educación constituye un pilar fundamental para el desarrollo personal, la cohesión social y la construcción de una ciudadanía crítica, inclusiva y comprometida. El artículo 27 de la Constitución Española reconoce el derecho a la educación y atribuye a los poderes públicos la responsabilidad de garantizarlo. En el ámbito de la comunidad autónoma, el Estatuto de Autonomía del País Vasco y la Ley 17/2023, de 21 de diciembre, de Educación del País Vasco, configuran un sistema educativo basado en los principios de igualdad, inclusión, excelencia, cohesión social y participación comunitaria, reconociendo expresamente el papel de los municipios en la gobernanza educativa.

La Ley 17/2023 incorpora una visión amplia de la educación, entendiendo que no se trata únicamente de un proceso que se desarrolla en el ámbito escolar, sino de una responsabilidad compartida entre la escuela, las familias, las instituciones y la comunidad. Considerando que la escuela, la familia y el entorno social son agentes activos en el proceso educativo, la educación no se limita al ámbito de los centros escolares, sino que se desarrolla en toda la comunidad como una responsabilidad compartida. De este modo, toda la comunidad aprende y toda la comunidad enseña, reconociendo la educación como un proceso permanente que enriquece a las personas tanto a nivel personal como social, y las convierte en agentes educativos activos.

En este contexto, Durango se concibe como un territorio en el que la educación se desarrolla en el ámbito formal (educación reglada), no formal (actividades con intencionalidad educativa fuera del sistema escolar) e informal (situaciones cotidianas con impacto educativo, aunque sin intención explícita).

eguneroko egoerak, nahiz eta asmo esplizituritk ez izan) garatzen duen lurralde gisa.
Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legeak haur eta nerabeak eskubide osoko subjektu gisa aitortzen ditu, eta bermatzen du haiei eragiten dieten gaietan entzunak izateko eta parte hartzeko duten eskubidea. Printzipio horrek gidatzen du Kontseiluaren konfigurazioa, non haurrek, nerabeek, familiek eta hezkuntza- eta komunitate-eragileek zeregin aktibo eta esanguratsua izango duten. Haur eta nerabeen presentzia sustatzeaz haratago, Kontseiluak koordinazio mekanismo egokiak txertatuko ditu haien parte-hartzea benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Tokiko esparruan, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak udalerriei esleitzen dizkie herritarren partaidetza, gizarte-kohesioa eta garapen komunitarioa sustatzeko eskumenak, eta parte-hartzerako organo sektorialak sortzea legitimatzen dute, hurbileko eta erantzukizun partekatuko gobernantzarako tresna gisa. Halaber, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioak Kontseiluaren osaera gidatzen du, berdintasunaren eta justizia sozialaren isla gisa.

Hezkuntza-alorrean orain arte abian izan diren guneek euskararen arnasgune izateko bokazioa dute, eta bokazio horri jarraitasuna emango zaio.

Testuinguru horretan, Durangoko Udaleko Hezkuntza-kontseilua organo kolegiatu, aholkulari, parte-hartzaile eta koordinazioko gisa ulertzen da, tokiko hezkuntza-ekosistema artikulatzeko helburuz.

Ondorioz:

Durangoko Udaleko Hezkuntza-kontseilua arautzeko ordenantza egin aurretik, kontsulta publikorako aldi bat irekitzea

Además, la Ley 2/2024, de 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia del País Vasco, reconoce a niños, niñas y adolescentes como sujetos de pleno derecho y garantiza su derecho a ser escuchados y a participar en los asuntos que les afectan. Este principio guía la configuración del Consejo, en el que la infancia, la adolescencia, las familias y los agentes educativos y comunitarios tendrán un papel activo y significativo. Más allá de promover su presencia, el Consejo incorporará mecanismos adecuados de coordinación para garantizar una participación real y efectiva.

En el ámbito local, la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuyen a los municipios competencias para fomentar la participación ciudadana, la cohesión social y el desarrollo comunitario, legitimando la creación de órganos sectoriales de participación como herramientas de gobernanza cercana y corresponsable. Asimismo, el principio de representación equilibrada de mujeres y hombres orienta la composición del Consejo, como reflejo de la igualdad y la justicia social.

Los espacios impulsados hasta ahora en el ámbito educativo tienen vocación de ser espacios de referencia para el uso y promoción del euskera, vocación a la que se dará continuidad.

En este contexto, el Consejo Municipal de Educación de Durango se concibe como un órgano colegiado, consultivo, participativo y de coordinación, con el objetivo de articular el ecosistema educativo local.

En consecuencia:

Se acuerda la apertura de un período de consulta pública previa a la elaboración de la ordenanza reguladora del Consejo Municipal de Educación del Ayuntamiento de Durango por un periodo de 15 días

erabaki da, 15 egun naturaleko epean eta udalaren web-orrian iragarrita.

naturales y mediante anuncio en la página web municipal.

Alkatea

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia